BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3893

AGINDUA, 2015eko abuztuaren 27koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, «Gondra – Barandiaran Fundazioaren» estatutuetako 4. artikuluan (helbidea) egindako aldaketa onartu eta inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2015eko maiatzaren 28an, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Erregistroan, sarrera eman zaio Sara Ortiz de Urbina Zubía andreak Gondra – Barandiaran Fundazioaren izenean aurkeztutako eskabideari.

Eskabidearekin batera, batzordea izendatzeari, ahalei eta artikulua aldatzeari buruzko eskritura publikoaren kopia bikoitz baimendua aurkeztu zen. Eskritura hori, Gondra – Barandiaran Fundazioak egiletsi zuen, 2015eko maiatzaren 21ean, Bilboko notarioa den José Antonio Isusi Ezcurdia jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 2.345).

Eskritura publiko horrekin batera, aurkeztu zen honako ziurtagiri hau: Fundazioko idazkari gisa, José Antonio Álvarez Barriocanalek –lehendakariaren oniritziarekin– 2015eko maiatzaren 11n emandakoa, Patronatuak 2015eko maiatzaren 11n egindako batzarrari buruzkoa, zeinean, besteak beste, aho batez onartu baitzen fundazioaren estatutuetako 4. artikulua aldatzea, eta beraz, fundazioaren helbidea aldatzea.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek espedientea aztertu, eta ondoren, erabaki-proposamena eman dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Aipatutako manuak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gondra – Barandiaran Fundazioaren estatutuetako 4. artikuluan egindako aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Fundazioen estatutuen aipatu aldaketa inskribatzeko agintzea agindu honen datarekin, eta egoitza sozialaren aldaketa eta horren ondoriozko estatutuetako aldaketa jasotzen dituen eskritura publikoarekin bat etorriaz. Eskritura hori Fundazioak egiletsitakoa da, 2015eko maiatzaren 21ean, Bilboko notarioa den José Antonio Isusi Ezcurdia jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 2.345).

Inskripzio hori dela-eta, aurrerantzean Fundazioaren helbidea hauxe izango da: Getxoko Zugazarte hiribidea, 8. zk. (Abra 4 erakina), 4. solairua, 3. departamentua.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abuztuaren 27a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.